

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

715

AGINDUA, 2025eko otsailaren 6koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kide bat kendu, kide bat izendatu eta batzordearen osaera jakinarazteko dena.

Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko 2016ko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren 2. artikulua lehenengo paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, batzordea osatzen duten bi kideak Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak izendatuko ditu, deialdi publikoa egin ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari dagokio izendapen hori egitea.

Era berean, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen 2016ko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren 2. artikulua 3. apartatuak ezartzen duenez, «Haien autonomia bermatzeko, aipatu funtzionarioak lau urterako izendatuko dira eta agintaldia iraungitzeagatik edo batzordeburuak euren betebeharrak larriki ez betetzeagatik, euren eginkizuna betetzeko ezgaitasun iraunkorragatik, gerora sortutako bateraezintasunagatik edo doloazko delituagatik kondenagatik dagokion prozedura bete ondoren baino ezingo dira kargutik».

Hala ere, bokaletako batek, Aitor Arano Echevarría jaunak, 2024ko urriaren 18ko Agindua bidez izendatu zenak (Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren Agindua, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kide bat kendu eta izendatzen duena, eta haren osaera argitara ematen duena), uko formala jakinarazi zuen 2024ko abenduaren 20an, organo horretan bere eginkizunak betetzen jarraitzea eragozten dioten bat-bateko arrazoiengatik, eta, ondorioz, batzordekide izateari uzten dio.

Deialdi publikoaren bidez hasi da Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzorderako kide bat izendatzeko prozedura. Deialdi horretan ezartzen denez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez egingo da izendapena, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2025eko urtarrilaren 17an amaitu zen.

Behin hura betetzeko ezarritako prozedura amaituta, 128/2016 Dekretuaren 2.1 artikulua ematen didan eskumena baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Aitor Arano Echevarría jauna, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kidearen kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.— Iñigo Ordeñana Oleagordia jauna izendatzea, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kidea, 4 urterako.

3. artikulua.— Hauek osatuko dute gaur egun Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea:

Presidenteak:

– Miren Martiarena Barcaiztegui andrea, Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren zuzendaria.

Kideak:

– Iñigo Ordeñana Oleagordia jauna.

– Ana Isabel García Maté andrea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da, jende guztiak horren berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 6a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.